

«Hitzak ez dira bizi filologoen munduan, testuetan bizi dira»

Euskararen inguruko gogoeta eta «argi eta ongi esateko» iradokizunak biltzen dituen 'Bitakora kaiera' liburua aurkeztu du Ibon Sarasolak

:: N. AZURMENDI

DONOSTIA. 'Euskara batuaren ajeak' argitaratu zuenetik 20 urte betetzera doazela, eta 'Zehazki' ia mila orrialdeko hiztegiak 11 bete dituen honetan, 'Bitakora kaiera' saikera plazaratu du Ibon Sarasolak.

Euskarak 1968an Arantzazun hasi zuen batasunerako bideari erreparatuta, «berandu baino lehen, beharrezkoa da lehari kolpe zuzentzaile bat eragitea» zioen 1997an Sarasolak. Izenburuan itsas giroari eutsi dion azken honetan ere eragin dio lehari, euskararen inguruko gogoeta eta horren erabiltzaileei zuzendutako zenbait iradokizun uztartuz.

«Ez da gramatika edo arau liburua», argitu zuen Sarasolak aurkezpenean. Ez da liburu arin-arina, gehitu daiteke, ezta espezialista edo filologoei zuzendua ere. «Hizkuntzarekin borroka» egin behar duen edonork bali ditzake Sarasolak azal 'vintage' samarrean Lur argitaletxeari omenalditxo egin dion liburura eraman dituen oroitzapenak eta proposamenak.

Atariko bertatik bertara ezagutu eta bizitako euskara batuaren sorreri eskaini dio, «euskara batuaren mirariari». Orduko kontu interesgarri asko ekarri ditu liburura, gehiegi luzatu gabe baina zenbait gauza bere tokian jarrita.

Errealitateak, ordea, egin du bere lana azken bost hamarkadotan. Euskara batua ere pasa da alegia errealitatearen galbahetik, eta horrek planteatu ditu zalantza asko; esaterako, euskara batuaren eta euskalkien arteko harremanen ingurukoak. «Nire ustez euskalkiek, bizpahiru belaunalditan, euskalki izateari utzi behar diote eta aldaera huts bihurtu behar dute», idatzi du.

Leizarraga eta Altube

Bernardo Atxagari hartu dion «euskaraz idaztea ezin da izan gimnasia ariketa bat» aipuak bete-betean egiten du bat liburua zeharkatzen duen kezkarekin: nola asmatu «argi eta ongi esaten» horrenbeste gimnasia ariketarekin min hartu gabe.

Proposamen bikoitza egin du Ibon Sarasolak: Leizarragarengana bueltatzeta eta Altuberengandik aldentzea. 'Back to Leizarraga' eta 'Escape from Altube'. Aurreneko proposamenak Arestirengana daruma aurrena, eta ia izenburu horixe zuen liburua argitaratu zuen Kepa Altonagarengana ondoren. Erlatibo anaforikoak aztertzen dituen atal batek ez du oso

BITAKORA KAIERA
IBON SARASOLA


Argitaletxea: Erein.

Bilduma: Saiopaperak-

Literatura.

Orr.: 160.

Salneurria: 14 euro



Ibon Sarasolak Donostian aurkeztu zuen atzo liburua. :: MIKEL FRAILE

erakargarria ematen, baina segituan ulertzen da zer nolako euskara mota hobesten duen egileak ariketa gimnastikoak ekiditeko. Besteak beste, Altuberengandik bueltatzeta eta gaurkoei –«garbizalekeriak ezin sinetsizko arrakasta du gaur egun ere», esan zuen– ihes egiten diena.

Proposamen horiek aintzat hartuta, nora jo dezake euskararen erabiltzaileak eredu bila? Hiztegitzari eta araugintzari urteak eta urteak eman dizkion Ibon Sarasolaren us-

tez, corpusetara, idatzitakoa jasotzen duten biltegi handietara.

«Hitzak ez dira bizi filologoen munduan, ez dira bizi hiztegietan, testuetan bizi dira», adierazi zuen, azpimarratuz zuzentasunaz haragoko faktoreak ere izan behar direla kontuan. «Filologia gutxiago, eta begiratu jendeak nola idazten duen, batez ere idazle onek», esan zuen hasieran liburuari 'Kontuak garbitzen' izenburua jarri nahi izan zion filologoak.

Etzi egingo da Donostiako Kursaal Kantu Zaharren lehen afaria

:: DV

DONOSTIA. Kursaal hartuko du datorren larunbatean, abenduak 3, Donostian inoiz egin den Kantu Zaharren lehen afaria. Kursaal Eszenak ohar baten bidez azaldu duenez, «kantutegi tradizionala eta gastronomia uztartzen dituen Donostiako Kantu Zaharren Afariak bat egiten du Euskararen Nazioarteko Egurenaren ospakizunekin».

Ikuskizunak 2004 urtean du jatorria, Baztanen. 67ko kintoak urtero elkartzen ziren eta bazkari hura beti amaitzen zuten kantuan. Angel Mariezkurrena, kultur-eragilea eta ekimen honen sortzailea, konturatu zen jende askok ez zituela abestiak osorik ezagutzen. Hau horrela, letrak fotokopiatan banatzea erabaki zuen, jendeak abesti guztiak hasieratik bukaeraraino kanta zitzaizkien. Orduetik hona, Kantu Zaharren Afaria Euskal Herrian barna zabaldu da, ezagunena telebistan eman ohi duten Dantzarineako Kantu Zaharren Eguna izanik.

Musikari dagokionez, bertarututakoak izango dira protagonista, euskal kantak abestuz. Afaria, berriz, NiNeu jatetxeak eskainiko du. Errepertorioa Euskal Herriko kantu herrikoi sorta zabalak osatuko du, eta partaide guztiei banatuko zaien liburuxka batean jaso dira kantu horiek guztiak. Angel Mariezkurrena bera izango da 20:00etan hasi eta gauerdian amaituko den ekitaldi honen gidari eta animatzailea.

CASINO KURSAAL by luckia

Consigue la baraja exclusiva

MUS&FUN

por solo 5€ en el **Casino Kursaal**
o en **www.musandfun.com**

Se donará 1€ de cada baraja vendida a la Fundación Movember.



* Edición limitada 2016

Prohibido el juego a menores de 18 años / presentación DNI, Pasaporte / Pasaporte, NAN.
JOLASEAN DIBERTITU ZAITEZ DIBERTIMENDU ETA JOSTAKETA ARDURATSUA GOMENDATZEN DIZUGU.
DIVIÉRTETE JUGANDO, TE RECOMENDAMOS LA DIVERSIÓN Y EL JUEGO RESPONSABLE.

Joko Arduratsua
Juego Responsable

C/ Mayor, nº1
Donostia / San Sebastián
Tel.: 943 429 214



www.casinokursaal.com